

DB39-HAZIEN SAREA-Elkarrizketa

Joseba Ibargurengoitia

SARRERA:

Joseba Ibargurengoitia Gascó biologo eta ingurumen-dibulgatzaile da. Euskal Autonomia Erkidegoan landatutako biodibertsitatea kontserbatu, berreskuratu eta zabaltzeko **Euskal Herriko Hazien Sarea taldeko presidentea dugu, gainera.**

Plentzian jaioa, **Itsas Zientziak ikasi zituen Vigoko Unibertsitatean,** eta bertan garatu zuen botanikarekiko eta biodibertsitatearekiko interesa. Marinel familia batetik datorren arren, bere bideak lurrera eraman zuen, bertako hazien zaintzaile-enbaxadore bihurtuz.

Talde horren lana, nekazariekin batera, landare-barietate tradizionalak berreskuratzea da. Horietako asko desagertzeko arriskuan zeuden, labore komertzial uniformeak eta intentsiboak nagusi zirelako. **Berreskuratutako espezieen artean, Deustuko tomatea, Zallako tipula morea, Durangoko porrua, Sabandoko gari gorria eta Apellanizko gaztaina daude,** besteak beste. Euskal Herriko Hazien Sarea **1996an sortu zen,** eta 1.300 bazkide baino gehiago ditu, eta **2.000 hazi eta fruta-arbola autoktono** baino gehiago berreskuratu ditu.

Josebak **dibertsitate genetikoak ematen duen elikadura-subiranotasunaren eta segurtasun ekologikoaren garrantzia nabarmentzen du.** Nekazaritzaren industrializazioa, biopirateria eta herritarrak lurrarekin deskonektatzea kritikatzin ditu, eta boluntarioria, ingurumen-hezkuntza eta lotura komunitarioen sendotzea sustatzen ditu. Lankidetzan aritzen da udalekin, eskolekin eta parke naturalekin, hala nola **Valderejorekin eta Izkirekin, eta tailerrak, azokak eta jardunaldi irekiak antolatzen ditu Gasteizen.**

2025ean, bere mezuagatik nabarmendu zen: **"Denok gara superekologistak... baina hirikoak"**, pertsonak kontzientziatuta dauden arren, nekazaritza tradizionalarekiko deskonexioak arazo kritikoa izaten jarraitzen duela azpimarratuz.

GALDERAK:

1. **Aurkezpena**, bai taldearena zein Josebarena.
- **Negua Joan da ta - Zea mays - Era-**
2. Nola pasatu zinen itsas zientzietatik lur eremura, zer dela eta?
3. Noiz sortu zen "E.H.ko hazien sarea", nola, zertarako, zenbat zarete, baratx edota mintegiak non dauzkazue?
4. **Auzolanean** antolatzen zarete udal eta beste taldeekin? Harreman horiek guztiz beharrezkoak dira hazien inguruko jakinduria ezagutu, bermatu eta zabaltzeko? Kontaiguzu.

-Soka fina - Haziak - Males Herbes-

5. Zergatik dira hain garrantzitsuak mundu global honetan bertako **haziak**, hazien monopolioaz eta manipulazioaz ere hitz egin daiteke? Horiek galtzeak zer dakar?
6. Zeintzuk dira **berreskuratu dituzuen haziak eta espezieak**, bai baratzean zein fruta-arboletan? Sendabelarrei ere erreparatzen diezue edo 3. mailako atal bat da?

-Belar hoberena - Xabaltx - Loreak Askatu-

7. Zeintzuk dira urtean zehar finkatuta daukazuen **hitzordu nagusienak**? Azaldu pixka bat.

-Zorionaren bila - GuraShow - Topatu-

8. DENON BASOAN bi irratsaio dedikatu dizkiogu, elkarrizketa hau baino lehen, **BASO JANGARRIEI** uste baitugu **elikadura subiranotasunaren** baitan guztiz beharrezkoa dugula, basogintza klasikoaren kontzeptua, hots biodibertsitateari eta egurrari lotutakoa, zabaltzea. Zer pentsatzen duzue zuen elkartetik gai honetaz eta zer ekarpen egiten diozue?

-Ikusi - Delirium Tremens - Ikusi Eta Ikasi-

9. Inoiz irudikatu al duzue nola izan zitekeen baso jangarri bat? ezagutzen duzue esperientziaren bat, ala hau ere zuen helburuetariko bat da?
10. Ipar Euskal Herriarekin eta Penintsulako beste talde batzuekin koordinatuta zaudete?

-Harrobian Biluzik - AmAi [Eteranal] - ZU|LO-

11. **Zer da hazien eta fruta-arboleten zaindariaren** figura, zeintzuk dira betebeharrak eta nola egin gaitezke zaindari?
12. Zuhaitzak banatu egiten dituzue ere. Zer dela eta, zertarako?
13. Bukatzeko zerbait gehiago?

INFORMAZIO OSAGARRIA:

- [Euskal Herriko Hazien Sarea](#)
- ["Todos somos superecologistas... pero de ciudad"](#)
- [Red de semillas, guardianes de nuestra biodiversidad](#)
- [Apellaniz-gaztainaren festa](#)

- [Recuperación de semillas, clave para la soberanía alimentaria](#)
- [La huerta autóctona de Zalla](#)
- [Gaztainei buruzko tertulia - Oñati - 2022-11-16 -](#)
- [Semillas tradicionales de Ipar Euskal Herria](#)

PODCASTERAKO

EUSKAL HERRIKO HAZIEN SAREA-Elkarrizketa



Joseba Iburgurengoitia Gascó

Joseba Iburgurengoitia Gascó biologo eta ingurumen-dibulgatzaile da. Euskal Autonomia Erkidegoan landatutako biodibertsitatea kontserbatu, berreskuratu eta zabaltzeko helburua duen **“Euskal Herriko Hazi Sarea”** taldeko presidentea dugu, gainera. Talde horren lana, nekazariekin batera, landare-barietate tradizionalak berreskuratzea da; horietako asko desagertzeko arriskuan zeuden, labore komertzial uniformeak eta intentsiboak nagusi zirelako. Berreskatatutako espezieen artean, Deustuko tomatea, Zallako tipula morea, Durangoko porrua, Sabandoko gari gorria eta Apellanizko gaztaina daude, besteak beste. Euskal Herriko Hazi Sarea 1996an sortu zen, eta 1.300 bazkide baino gehiago ditu, eta 2.000 hazi eta fruta-arbola autoktono baino gehiago berreskuratu ditu.

BASO BIZIEN ALDE, AUZOLANEAN, DENON BASOARI BIDEA EMAN

Irratsaioaren egilea: Edu Zabala Garagartza

Dokumentua:  DB39-HAZIEN SAREA-Elkarrizketa



Harremanetarako: **basobiziakplataforma@gmail.com**

Web orria: **<https://www.basobiziakplataforma.org/>**

Telegrameko kanala: **<https://t.me/basobiziakplataforma>**

Beste kanal batzuk: **Facebook, Instagram eta Mastodon**

